

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urriaren 9a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Zubieta • Gaur irekiko dute errota zaharberritua.
Jabier Igiñiz • «Baliagarria izatea da nire helburua».

Abian da arkitektura



• OSKAR MONTERO

bioklimatikoa

Arkitektura bioklimatikoaren irizpideak jarraituz eraikitako etxeak herrialdean gutxiengoa diren arren, gero eta proiektu gehiago ari dira gauzatzen. Horren lekuko dira Goizeder kooperatibak Egusibarran egindako etxebizitza saila edo Gobernuak Zolinako herrian kokatu nahi duen hiri bioklimatikoa.

Zubieta • Errota zaharra ekomuseo bihurtua

Bihar inauguratuko dute, zaharberituta, Euskararen Egunaren baitan

Zubietako hainbat familiaren esku zegoen errota Udalak hartu du hamabost urterako. Eta, berriztatu ondoren, ekomuseoa paratu du bertan.



Bihar zabalduko dute Zubietako errota zaharberitua.

JACOBA MANTEROLA

ORAINDIK ERE ARTOA XEHETZEKO erabiltzen dute zubieta-rrak errota, eta aurrerantzean ere erabiltzen jarraitu ahal izanen dute, nahiz eta erabilera horretaz gain ekomuseoa ere aterbetuko duen. Udalaren esku utzi dute errota, 15 urterako, haren jabe diren 49 herritarrek. Dena konpondu, berriztatu eta txukundu ondotik, prest da jadanik baserri giroa islatuko duen museoa, eta bihartik aitzinera bisitatu ahal izanen da. 21 milioi pezetako aurrekontua izan du zaharberitzeak, eta horietatik 13,5 Euroatik lortu ditu Zubietako Udalak.

Zubietakoa Nafarroan dagoen lehenbiziko ekomuseoa izanen da. Baserri giroan erabili izan diren tresnak, lanabesak, etxeko ontziak, ohiturak eta jantziak biltzen ditu, eta galtzean dagoen bizimodu horretara hurbiltze bat izan nahi du. Ituren eta Zubietako inauteriek ere leku berezia izanen dute ekomuseoan.

Baztan-Bidasoa eskualde osoan, ari diren bi errota baino ez dira gelditzen (Zubietakoa eta

Etxalarkoa), eta arront gelditu aitzinetik erabaki dute Zubietakoari iraupen luzeagoa eskaintzea. Ikastetxeentzat ere bisitaldi gidatuak prestatu dituzte, eta errota martxan ikusi ahal izanen da, museoa bisitatzearekin batera.

Errota aterbetzen duen eraikinaren jatorria noizkoa den ez dago argi, baina ate gaineko harriak 1785eko data biltzen du. Antzinako eraikin horren itxura kanpotik zein barrenetik gorde nahi izan dute, eta hortaz, ekomuseoak ez dio kalterik ekarriko. Barrenean egin diren aldaketak tikiak dira. Sotoan dauden hiru harriak martxan paratuko dira: artoa xehetzeko erabiltzen diren biak, eta hirugarrena garirako. Lehenbiziko solairuan errotaria-

ren etxea egonen da, eta museoa bera ganbaran izanen da. Ganbarako erakusketan errotaren prozesu osoa ikusi ahal izanen da.

Inaugurazioa Euskararen Egunean

Biharko inaugurazioa Zubietan ospatuko den Euskararen Egunaren baitan egingen da. Egun osoan hainbat ekitaldi izanen dira, Zubietako Udalak antolatuta. Zubieta da UEMAK Nafarroan dituen lau herrietako bat, eta orain berriki hasi den Kultur Elejiraren barrenean izanen da biharko eguna. Goiz-goizetik Joaldunak aterako dira karrizak karrika, 11:00etatik aitzinera. Ordu erdi beranduago, 11:30etan, inaugurazio ekitaldia

eginen da. Trikitilariak eta txalapartariak ongi etorria eskainiko diote museo berriari. Errotako erakusketa ikusi ahal izanen da, eta bertarafutako guztiei eskainiko zaien luntxean ez da talorik faltako; Zubietako errotak ehotako artirinarekin eginak, jakina.

Eguerdian, herritarrak bazkaltzera elkartuko dira, Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin batera, eta Xapre eta Zaharra trikitilari-ekin. Arratsaldeko 7:30etan herriko dantzariak euren ikuskizuna eskainiko dute, eta 20:00etatik aitzinera dantzaldia girotuko dute Xapre eta Zaharra trikitilari-ekin. 12:30etatik aitzinera, berri, Imuntzo eta Belokik emanen diete akabera bestari.

→ Jon Abril

Gaintza • Gipuzkoako Gaintzarekin senidetzea, igandean

TOLOSARA FERIARA EDO PARRANDARA joaten direnean, behin baino gehiago argitu behar izaten omen dute gaintzarrek ez direla Gipuzkoako Gaintzakoak, Nafarroakoak baizik. Horregatik, herritar askok behin baino gehiagotan entzun dute izen bera duen Gipuzkoako herria.

Hori horrela izanik, duela bi urte ideia bat bururatu zitzaizen Gaintzako gazte batzuei. Orduan saiatu, saiatu ziren ideia hori gauzatzen, baina aurten arte ez da posible izan. Azkenik, igande honetan, txango bat egingo dute. Batzuk oinez, beste batzuk autoz, Gipuzkoako Gaintzara joango dira herritarrak, mendiz mendi. Muga zeharkatuz, Goierriko herriraino iritsiko dira, baina bide guztia ezagutzen ez dutenez, giputxiak gerturatuko omen zaizkie bide erdiraino, azken pausoak elkarrekin eman asmoz. Gero, hango elkartean, bazkari ederra izango dute, bai baitakite adiskidetasunik handienak mahai baten inguruan sortzen direla.

Ideiaaren sortzaileek ez dute elkartzeko festa hau errepikatzeke aukera baztertzen. Esate baterako, datorren urtean txangoa beste aldera egin daitekeela uste dute, hau da, gipuzkoarrei harrera egin beharko dietela Nafarroan.

Horrela, agintari nafar batzuk bi elkarte autonomoen arteko harremanak eteten saiatu arren, gaintzarrek argi dute bere izen bereko sendekin harremanak estutu behar dituztela.

→ Urko Aristi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gorrorik ez da, entzun nahi ez duena baino ezta itsuagorik ikusteko eginalak egiten ez duena baino. «Euskal arazoaren» inguruan gor, itsu eta mutuarena egiten du Nafarroako Gobernuak eta Gobernua bera sostengatzen duen partiduak.

Hain ezaguna den tximinoaren modura, kanpotik zirikatzen ez bazaio hortxe segituko dute gure tximu mandatariek batere emankor ez diren beren esku txikiz begiak, ahoa eta belarriak estaltzen.

Bizitza tokatu zaigun garai honetan telebistan ikusten ez dena ez omen da gertatzen. Baina begiak itxirik, zail xamarra izanen dute agintariek telebistak zer ematen duen ikustea

eta inguru gertutik suertatzen dena sumatzea ere.

Euskalherria Irratiak hamar urte daramazki legez kanpo lanean. Iruñerriko euskaldungoari zor zaio bere hasmentatik ofizialtasuna. Geroz eta ozenago aditzen da horren aldeko garraxia, gizarteko alor guztietan, karrketan. UPNko Gobernua gorrarena egiten segitzen du. Eskuetan duen legea erabiltzen du nahi duena egiteko, hau da, betiko moduan euskararen kontra jotzeko. Baimenen banaketa gure kulturaren etsai amorratua dugun sailburu baten eskuetan egin da gainera.

Erabakia, horren amorratuak ez omen zirenen eskuetan egon zenean etzen hobeagorik

gertatu. Euskal usaia duen guztiairekin kontra jotzeko atxaki ederrak asmatu dituzte beti oraingoan eta lehengokoek. Beharrik besteen esparruetan txinaurrien lanak ez duela etenik izan. Mantso bainan tinko, aurrerantz. Goitik agindutako norabidea kontrakoa izanik ere geurea egingen.

Inun baino gehiago argi dago hementxe legearen aurretik doala gizartea. Azkenean ezinbestekoa egingen zaie lege-egileei aldaketa. Ez dago urtegi-ormarik ekaitz bortitzaren indarrari eusteko gauza denik. Herriaren borondateak lortuko du honetan ere burugogokeri politikoa gainditzea. Berez, eskuak zabalitzen ez baditu, egurra tximinoari, hemen gaudela ohartu arte.

Entzungor

Lizarra • Gustavo de Maeztu Museoaren taupada berriak

Artelanen mundura hurbiltzeko aukera anitz eskaintzen ditu museoak

Erakusketak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzeaz gain, Gustavo de Maeztu Museoa Espainiako literaturgileen zenbait fundaziorekin batu berri da, elkarlanean aritzeko xedearekin.



Gustavo de Maeztu museoa erakusketak berriak ikusi ahal izanen dira datorren hilabeteetan.
• LUIS AZANZA

SORTU BERRIA DEN ESPAINIAKO Museo Etxe eta Literaturgileen Fundazioaren kide aitzindaria da Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa. Irailaren erdialdean bildu ziren Salamancan Espainiako hainbat museo eta fundazio, eta handik jaio zen aipatu elkarte. Xedea gizartearen kulturarekiko grina sortzea da. Camino Paredes Lizarrako museoaren zuzendariaren hitzetan, helburu nabarmen hori bete ahal izateko elkarlanean aritzea otu zaie. «Lanean bakar-kak aritzeak muga asko jartzen eta sortzen dizkizu. Sortu berria den elkartearekin, berriz, bakar-kak ezinezkoak liratekeen hainbat proiektu bideratu ahal izango ditugu: izan ere, laguntza eskainiko diogu elkarriz». Horrela, trukeak, argitalpenak, ikerketak, biltzarrak eta erakusketak bideratu ahal izanen dituzte elkarren artean. Camino Paredesen hitzetan, elkarlaguntza bi modutan

egin daiteke. Batetik, elkarteen beraren ekimenetik eta, beraz, fundazio eta museo etxe guztien partehartzearekin. Eta bertetik, erakunde ezberdinek elkarren artean lortzen dituzten akordio bidez. Kasu honetan bi erakunde ezberdinek elkarren artean lortzen dituzten akordio bidez egiten da eta bi erakunde nahikoa lirateke proiektu komun bat aurrera eraman ahal izateko.

Hemeretzi kide

Museo Etxe eta Literaturgileen Fundazioko kideak —19 orotara— bost alditan bildu dira elkarte sortu aurretik. Hauexek dira elkartearen parte hartzen duten 19 erakundeak. Sei museo etxe: Azorinen Etxe Museoa; Legado de Arniches Museoa; Antonio Macha-

doren Etxe Museoa; Perez Galdos eta Tomas Moralesen etxe museoak A Coruña eta Jovellanosen Etxe Museoa Gijonen. Bestalde, elkartearen daude: Miro Liburutegia (Alacant); Madrilgo Ikasleen Egoitza; Giner de los Rios Fundazioa; Ortega eta Gasseten Fundazioa; Santanderko Menendez Pelayo liburutegi; Unamunoren etxea Salamancan eta Fuenteventuran; Odon Betanzos del Condado Fundazioa Huelvan; Huerta de San Vicente Patronatua Granadan, eta Palafrugell del Baix Emporda Museoa Gironan.

Baina museoak harremanak zabaldu ez ezik, erakusketak egitarau oparoa izaten jarraitzen du. Eraikinaren hormetan margo erakusketak dago eskegita azaroaren 22ra arte. Bertan, Carlos Saez de Tejada, Marokoko artistaren mar-

goak ikus daitezke. Margolariak 1920-1934 urte bitartean egindako 224 irudi jaso ditu erakusketak. Saez de Tejada mende honen aurreneko hamarkadetak margolari garrantzitsuenetako bat da. *Askatasunaren garaia* izenburupean, urte haietan bizi izan zen ziurgabetasuna ageri dute irudiek.

Halaber, Mertxe Gil margolari bilbotarraren lanak bistatu daitezke egunotan museoan. Erakusketan hizkera abstraktoa eta errealista uztartzen ditu Gilek, irudiekin alegoriaz jokatu. Ildo beretik, Gustavo de Maeztu Museoak hainbat ikastaro antolatu ditu, artearen sakontasunean murgiltzeko bidea egiten dutenak denak ere.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Sakanako bideetan barna


Sakanako ibilbideen azterketa egin du **Guaixe** hilabetekariak azken zenbakian, Arbizun lau mendibide berri egokitu dituztela aitzakitzat hartuz. Mendibideok, Sakanako turismo eskaintza handitu dute; hala ere, eskualdeko naturaz gozatzeko dauden aukerak promozionatzeko orduan koordinazio eza da nagusi. Guaixeko artikuluak azpimarratzen duenez. «Sakanako ibilbide turistikoak ondoko hauek dira: Etxarri-Aranazko Trikuharrien Ibilbidea, Irurtzongo Bide Berdeak, Iturmendiko Galtzadako Bidea eta, azkenik, Arbizuko lau ibilbideak. Sara Berastegik, he-

rriko ibilbideak prestatzen ibili den arbizuarra, turismoa Sakanara erakartzeko eskualde mailan lan egin behar dela uste du».

«Koordinazioa beharrezkoa da. Turismo patzuegoak onak dira egitasmo eta ekimenak bateratu eta herri guztietan zer aukerak dauden ezagutzera emateko», aipatzen du Sara Berastegik, **Guaixe**-ko azken zenbakiko orrialdeetan.

«Arbizuko lau ibilbideak Beriaingo mal-korpean egokitu dituzte, eta hiru milioi pezetako aurrekontua izan dute. Finantziarioari dagokionez, hiru erakundek lagundu dute.

Zehazki, egitasmo berri honen finantziarioan parte hartu duten erakundeak honako hauek dira: Europar Batasuna (% 50), Nafarroako Gobernua (% 41), eta Arbizuko Udala (% 9). Lau ibilbideetatik hiru patxadaz egitekoak dira, Beriaingo tontorrera igotzeko ibilbidea izan ezik, gainontzeko hirurak nahiko ibilbide leunak dira-eta. Ibilbideen nondik-norakoak finkatzeko Nafarroako Mendi Federazioaren laguntza izan dute. Ibilbideak egiteko beharrezko informazioa, polikiroldegiko kanpoko aldean kokatu argibide-taulan paratu dute».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Nafar Erreinua pong

Tertuliano moduan arituko naiz orain. Hemen nago, nire etxeko sala dotorean, eserita, zangoak gurutzaturik, liburu mardul eta erdi ireki bat eskuen artean, eta nire begirada leihotik haruntzago doa ikusten ez duzen zer edo zerri begira, segurasko pentsamendu sakonetan murgildurik. Nire aurrean ardo botila bat dago, hustuta. Orain zuei begira nago eta hitzegiten hasi naiz.

-Nafarroan euskalduna naizen aldetik lege eta instituzio batzuk soberan eta beste batzuk, berriz, faltan ditudala pentsatzen dut. Sobran, esate baterako, Gobernu Zibila. Faltan, esate baterako, gainontzeko euskaldunekin erlazioak erraztuko dituen baten bat. Orain, gogo eta behar hauek asetzeko, ez dut zertan aintzina-ko historioetara jo beharrik. Hor-taz *historiakeria* gorroto dut. Gaur egungo egoeraz ari garela, berdin zait erromatarrek Euskal Herria konkistatu zuten ala ez, giputxien partehartzea Noainen eta nafar reketen erasoak Gipuzkoan. Askok eta askok, egungo egoeraz ari direla, aipatzen dituzten Antso Azkarra eta karlistadak bost axola neri. (Pausa dramatikoak. Liburuak altzaten dut). -Txinatarren hizkuntzan idatzia dagoen liburu hau bezain arrotzak dira niretzat. Txan txuen txin pong. Ez dut ulertzen. Antso Azkarra? txan txuen. Santa Krutz apaiza? txin pong. (Pausa dramatikoak). Nire aukerak berez legitimoak direla uste dut. Ez dute zertan historiari parekotasunik izan behar. Historiak gauzak argitzeko balio du bainan ez aukerak baztertu edo indartzeko. Gaur jakin dut Blas de Beaumont batek Foixeko Dukea Nafar Erregetzarako proposatu duela. Historiakeriaren gailurrera iritsi gara. Eskuarekin aintzifako garaiek erakutsi eta legitimitate hitza aipatuko dute gaur egungo errealtateari muzin eginez. Nire ustez Suitzarekin federatu nahi den nafar baten eritzia bestea bezain legitimoa da, gehiago akaso. Kontua da gaur egungo jendeak zer nahi duen, zeintzuk diren beraien interes kulturalak, humanistak, ekonomikoak. Historiaren makuluak botatzeko garaia da. Erdi aroko arbasoak txan txuen. Nafar Erreinua txin pong.

Arkitektura bioklimatikoa, naturarekin egindako aukera

Herrialdean gero eta gehiago dira eraikuntza horren oinarriak hartuz eraikitzen diren etxeak

Arkitektura bioklimatikoaren irizpideak jarraituz eraikitako etxeak herrialdean gutxiengoa diren arren, gero eta proiektu gehiago ari dira gauzatzen. Horren lekuko dira Goizeder kooperatibak Egusibarran egindako etxebizitza saila edo Gobernuak Zolinako herrian kokatu nahi duen hiri bioklimatikoa.

NATURAREN ERRITMOARI EGOKITUZ ETA HARK eskaintzen dituen energia baliabideak aprobetxatuz bizi osasuntsuago bat izateko asmoa ez da berria. Irizpide hori hartzen du aintzat eta aplikatzen du arkitektura bioklimatikoa.

Definizio zehatzik ez dagoen arren, arkitektura bioklimatikoa inguruko energia berriztatzaileak aprobetxatzeko baliabideak jartzen dituen eta eguzkiaren energia pasiboa jasotzen duen arkitektura litzateke Iñaki Urkia arkitektura bioklimatikoa aplikatuz lan egiten duen arkitektoaren ustez. «Beraz, arkitektura bera da energia hartzailea eta biltzailea. Horrela etxebizitzaren mantentze kostuak %70 jaisten dira. Aldi berean, produzitzeko energia gastu gutxi izan duten materialeak erabiltzen dira eraikuntzan eta eraikinarren parte izateaz gain, beroa gordetzeko funtzioa dute», azaldu du.

Irizpide hori aintzat hartuz egunotan mintzagai da Iruñean arkitektura bioklimatikoa. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak antolatutako jardunaldiaren hainbat esperientzia mahaigaine-

Juan Miguel Otxotorena


«Orain arte ez zegoen horrelako planteamendurik. Bioklimatikaren irizpideak hartuz, hainbeste etxebizitzako planik ez da oraindik gauzatu. Zolina bezelakoak etorkizuneko hiriak dira, nolabait»

ratzen ari dira eta horien artean Nafarroan dauden esperientziak eta asmoak azaleratuko dira gaur. Bakarkako egitasmo gauzatuak badiren arren, hiri edo herri oso bat egiteko asmoak hasi berriak dira. Horren adierazgarri dira, Egusibarran kokatzen den Goizeder kooperatibaren proiektua eta Nafarroako Gobernuak Zolinako herrian, Ekoriz urmaelan, kokatu nahi duen hiri bioklimatikoa. Urkiak dioenez, arkitektura bioklimatikoa eskura dauden baliabideak erabiltzen ditu. «Ez da dauden materialeak ukatzea eta dauden aurrerakuntza teknologikoak baztertzea. Azken 40 urteetako arkitektura ingurugiroari bizkar emanez bizi da. Betidanik egiten

jakin duguna berreskuratzea litzateke gurea. Eraikitzen dugunean gure ingurune naturalera egokitu. Naturari bizkar emanez eraikitzen hasi ginenetik, erregai fosilekin (petroleoa eta gasolla) ez gara konturatzeko luzera ez dela bideragarria eta gainera asko kutsatzen duela», gaineratu du.


Goizeder kooperatiba

Eguesibarreko Eransus herriko lursailetan kokatzen da Goizeder Etxebizitza Kooperatiba egiten ari den etxe bioklimatikoen proiektua. Guztira 100 metro karratu inguru dituzten zazpi etxebizitza lekutzen ditu eta zortzigarren bat non guztientzako energia sortuko duen haize errota bilduko den. Egitasmoa 1991an abiatu zen eta urte bat beranduago Nafarroako Gobernuaren baimean lortu zuten. 1995an hasi ziren eraikuntza lanen lehen pausoa eta dena uste bezala badao datorren urtean Eransusen bizitzen egon nahi



Zolinako hiri bioklimatikoa eraikitzen ari den etxeak.

Hegoaldera irekiak izateaz gain, egurra eta adreiluak dute eraikuntza oinarri. Oskar Montero



lukete Goizederreko zazpi bazkideak. Iñaki Casado, bazkideetako batek dioenez, ideia «herri ekologiko txiki bat eraikitzea zen». Egun nahiko aurreratua dago. Jadanik etxei teilatua eman zaie eta gutxinaka isten ari dira.

Itxuraz etxebizitza arruntetatik gehiegi aldentzen ez badira ere, aurretiaz kokapena ez ezik, eraikitze materialak. «Termobuztinezko adreiluak erabili ditugu, ongi isolatzen dutenak eta materiale ekologikoekin landutako egurra teilatua eta zoluarentzako», azaldu du Casadok.

Baina etxebizitza bioklimatikoa baten eraikuntzan materialak ez ezik, diseinua ere berebiziko garrantzia du. «Ongi isolatua behar du beroa gordetzeko eta hotza ez sartzeko. Era berean, eguzkiaren aprobetxamendu pasiboa ahalbidertu beharko du etxearen kokapena: iparraldea ongi isolatuz, lehio gutxi edo bat bera ere jarri gabe, eta, hegoaldera aldiriz, lehio handiak jarri eta ahal baldin bada negutegi bat egin. Horrela eguzkiaren beroa sartzeko da baina etxea ongi isolatua dagoenez beroa ez da joaten. Ura berriz, bertan duten iturri batetik bideratuko dute eta etxe bakoitzak izanen dituen eguzki biltzaileen bidez berotuko dute. Iruñerrian dauden eguzki orduak aintzat hartuz kalkulatzen da behar duten energiaren %80 edo lor dezaketela. Elektrizitateari dagokionez, etxeak autornikuntza elektrikoa izanen dute zortzigarren eraikuntza batean kokatuko duten haize erroterekin. «Haize errota jarriko dugu, eta hura gordetzen duten bateriak etxe guztietara banatu», dio Casadok. Proiektuan guzti horrezaz landa, zaborrak eta ur txarrak birziklazea ere pentsatu. Konpostero batean sartuko dituzte eta konpost sistemaren bidez ongarri bihurtu. Zaborrak bildu ondoren lehor mantendu behar dira oxigenorik gabe ez hartzitzeko. Airearen oxigenoarekin batera, uretan sartu gabe kanpoan egonen da zaborra eta ongarri bihurtuko da.

Zolinako hiri bioklimatikoa: esanguratsuen

Goizederreko proiektua gauzatzen ari den lehen herria bada ere, Zolinako hiri bioklimatikoa da martxan jarri daitekeen proiektu esanguratsuen. Zolinako herrian, Egues eta Aranguren ibarren lurretan kokatua dagoen Ekoriz urmaelan inguruan kokatuko da hiri. Nafarroako Gobernuak bultzatua Emiliano Mitre arkitektoaren proposamenari bideragarritasun ikerketeta bat egin zitzaion eta hasieratik zuten bi helburuak irizpide bioklimatikoekin eraikitzea eta energia



Plan baten bila

Zolinaren berri jakin zenean oposizio alderdiek proiektua begi onez ikusi bazuten ere, haren dinamika aprobetxatuz Nafarroa osoan aplikatu zitezkeen Etxebizitza Bioklimatikoen Plana eskatu zitoten Gobernuari. Plana aintzindaria da Hegoaldean zela Espainian. Parlamentura aurten igorriko den planaren koordinatzailea Manolo Enriquez Vinsako arkitektoa da. Planaren helburua «etxebizitza bioklimatikoen eraikuntza erraztea» litzateke, batpat. Neurriak oraindik zehaztuak ez baldin badaude ere, hiru irizpide hartuko dira kontutan etxebizitza bat egiteko garaian: energia aurreztea, energia berriztatzaileak eta eraikuntza osasuntsua. Modu horretan eraikuntza bioklimatikoa bideratu ahal izanen dira Nafarroan.

Plana egituratua bada ere, ez dago

etxebizitza bioklimatikoen sailkapenik eta zenbaketarik. «Ez dago zenbaketarik baina planak Zolina sostengatzen du. Helburuetako bat Zolina ongi ateratzea baita eta hori gauzatzen bada mila etxebizitza inguru izanen ditugu», dio. Eraikuntza bioklimatikoa egiten dituzten gero eta arkitekto gehiago badaude ere, hauek arautzen dituen legerik ere ez dago oraindik. «Ez dago planifikaziorik eta egiten diren eraikuntzak pribatuak dira. Planifikaziorik ez izatean ez dago ere legeri egokirik. Beraz, planifikazioak ekarriko digu ondoren ezarri beharreko araudia».

Enriquezen ustez, gainera, plana eredugarria izan daiteke Europar. «Hiri bioklimatikoa egiten ari dira Europar eta badao hiri horien arteko sare bat ere, baina ez dago aurreplifikaziorik».

Arkitektura bioklimatikoen filosofiari jarraituz, planak ez ditu bakarrik eraikuntza bioklimatikoa berriak sostengatu nahi baizik eta haratago joan nahi du. «Eraikuntza bioklimatikoa bakarrik sostengatuko dituela balio hankamotz gertatu litzateke. Planaren puntuetatik bat energia aurreztea da eta horregatik jadanik eraikiak dauden etxebizitzetan ere aplikatu daiteke.

Aide Zaharreko etxe bat eraldatu daiteke ongi isolatuz eta energia lortzeko aterabide alternatiboak erabiliz, beraz, hark ere planean egon beharko luke. «Ez du bakarrik eraikuntza berria errepertatu behar baizik eta jadanik egina dagoena hobetzean. Modu horretan guztiak identifikatu dira planarekin eta sostengua izan», bukatu du.

Iñaki Urkia

«Arkitektura bera da energia hartzailea. Horrela etxebizitzaren mantentze kostuak %70 jaisten dira. Aldi berean, produzitzeko energia gastu gutxi izan duten materialeak erabiltzen dira eraikuntzan»

hornituz bideragarria izan daitekeen hainbeste etxebizitzeko planik ez da oraindik gauzatu. Etorkizuneko hiriak dira, nolabait».

Juan Miguel Otxotorenen proiektuan parte-hartu duen arkitektoetako batek dioenez. Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Urmaelaren ingurua publikoa izateko ekarpen berriak asko aldatu du hasierako proiektua. «Diseinua razionalizatzen saiatu gara bai kokapenean eta bai espazioaren aprobetxamenduan. Diseinua aldatu egin da ekonomia alde. Horrek ez du esan nahi hasierako helburuak aldatzen diren. Hiriak printzipioz behar duen energia %75 energia sortuko luke. Autohornikuntza posiblea da baina arazoa prezioa da eta oraindik erabakitzeke daude faktore batzuek, materialeak... Erabateko autohornikuntza lortu daiteke beti ere hura ordaintzeko prest bazaude», azaldu du.

Ikerketak hiri hiru zatitan banatzen du: urbanizazioa bera, ibaiaren ingurunea eta basoa.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Andima Ibinagabeitiaz
asimasiak II: Euskal lanak

Andimaren idazlanak aterbetu zein zabaldu zizkion argitalpenen bat aipatu beharrean bageunde, horixe *Euzko Gogoa* litzateke, duda-mudarik ez da, 1954.ean Guatemalara buruz joko zuenean berak lematuko zuen ber alegia.



Andima Ibinagabeitiaz idazgintza oparoa Parisen zegoela hasi zitzaigun gauzatzen, hala zenbait euskal aldizkarietan nola irratit programetan ere, alabaina, Andimaren idazlanak aterbetu zein zabaldu zizkion argitalpenen bat aipatu beharrean bageunde, horixe *Euzko Gogoa* litzateke, duda-mudarik ez da, 1954.ean Guatemalara buruz joko zuenean berak lematuko zuen ber alegia. Ia euskal literatura-ren esku-liburu guztietan, Andimaren lehenengo lan goiztiar J. Benaventeren *La fuerza bruta* idazkiari egin zion *Abere-indarra* itzulpena agertzen zaigu, 1951.ean karrikaratua, eta Zaitegirekin batera egina nonbait. Andima bera, nahiz pertsonalki ez, ongikiro ezagutzen zuen Santi Onaindiak *Euskal idazti baten eunkiarengin* inguruan zenbait *gogoeta*, G. Garrigak erderaz egindakoaren euskarapenaren berri ekarri zigun bere bildumaren azken alekian, hau ere 1951.eko *Euzko Gogoa*-n. Baina urte hartan agertu lanik interesgarrienetako haмайru ataletaniko *Landareetaz atspanak: botanika asimasiak* zatekeen ausaz, gazte garaian eginiko lana, eta bere momentuan argitara eman gabekoa, geroago, Zaitegik eskatuta, Andimak arraidororik, bere hitzekin esatearren, lehen-ikastola-mailako neska-mutikoentzako egina: «Lau euskaltzale gazte elkartu giñan, ikastoletarako, euskeraz, gauzen-ikaskizunetaz ornitutako liburu bat egin bear genuela-ta. Botanika, zoologi ta geologiazko egitekoa eni egotzi zidaten».

Parisen emaniko urteek Miranderekin hartu-eman naroa aisatu zuten; horixe, neurri batean bederik ere, hainbat lanetan erraz azta liteke. Pako Sudupek esanaren arabera, Andimak erotikaren alorra ere jorratu zuen. Mirandaren bideberetik, Ovidioren *Ars amandi-*

ren irauketaren bidez. Itzulpen hau, baina, beste aldetik zitzaiokeen kezka-iturri, bere burua zuritu beharra izan baitzuen: «Norbaitek lan garbiago bati ekin bear niola erasoko dit. Erasoleak berak egin beza. Errex esaten da: au egin bear zenuen, beste au obeto izango zan. Buru ederra asmo ederragoz gainezka duzutenok, zergatik ez zerate zeuok lanera yartzen? Ez neri esan beste zerbait egin bear nuenik, zeorrek egin ezazu». *Euzko Gogoa*-n 1952.ean agerturik, azken edizioa Aintzane Arrietak apaillatu zuen Klasikoak bildumarako -Bilbo, 1994, 74. zenbakia-.

Urtebertsuetan ere, Virgilioren zenbait testuren itzulpena eman zuen *Euzko Gogoa*-n. Ameriketara zihoano, untzian landuak, 1954.ean agertu ziren Unai-kantak. Alor-kantak, ostera, Bilbon ageri ziren 1966.ean, Santi Onaindiak luzatu gonbiteari erantzun, karmeldarrak *Eneida*-ren eginiko irauketarekin batera. Azken edizioa, oixtian, Iñigo Ruiz Arzalluzen eskutik agertu da, Klasikoak sailean ere -Donostia, 1992, 55. zenbakia-.

Hizkuntza-konturik aipatu dugula, euskara aldetik ez zegoen guztiz ados Euskaltzaindiak aitzinaratu lanarekin, nahiz 1961.ez geroz euskaltzain oso izendatu. Bere apostua Azkueren gipuzkera osotua zen, Lapurteraren aldeko saioaren ginetik, nahiz nabarmenak ziren Mirande eta Peillen iparraldetarrengandik jasotako eraginak. Euskara izan zuen beti asmo guztien helburu. Euskara ikasteko metodoak egin zizkigun: esaterako *Euskera irudi bidez*, Parisen 1953.ean Norbait ezizenez sinatua agertu zena; 1960.ean eta Zarautzen berriz, *Euskal ikasbide erreza: Apenda el vasco en 60 horas* agertarazi zuen; honi buruz Koldo Mitxelenak iruzkin baikorra agertu

zuen 1961.eko *Egan*-en.


Argitara eman gabe Lazkao beneditarren etxean laga zituen lanen artean, euskal hiztegia ere badatza lo geldian.

Lazkaoko artxibategian ere, *Euskal elertaren edestia* 300 orrialdeko eskuizkribu gotorra bada, argitara zain, Andimaren kezka literarioen ispilu. *Euskal literaturaren amasegarraren mendea* izenburuko artikulua *Euzko Gogoa*-n agertu zuen 1954.ean, aurretik Londresko BBC irratian bi alditan esandakoaren laburpen. *Egan* eta *Revista conmemorativa del centro vasco de Caracas* aldizkarietan ere, *Mundu berriko euskal idazleak* artikulua agertu zuen erbeste-aldiko euskal literatura kondagai. Edozein modutan ere, Andima ez zen ohiko kritikaria ere. Iñigo Ruizek dioenez, Andimaren asmo bakarra euskara izan zen. Horregatik ere, askotan Andimari makalegia zela leporatu zioten, eta berak horren berri bazuen: «Bein baiño sarriagotan idatzi didate makalegia naizela kritikagintzan; obe nukela ezta baiño egurra erabilili nere idaz-lanetan, baiña ez diet kasurik egin (...) Nalagodut luma au milla zati egin eta surtara jaurti, euskal idazle bat, den delakoa, betiko ondatu baiño. Ain oparoa da gure soroa ernemin xamurrenak ere ostikopean zapaltzeko?».

Alabaina, ez zen horretan bakarrik Andimaren lana kolokan ezarri, eta politikaz denez bezanbatean, bereak eta bost ere jasan behar izan zituen. Caracasen zegoela *Irrintzi* aldizkari zuzendaria eta euskarazko testu gehienegile izan zen; hemen azaldu zuen bere testamentu politikoa, une mingotsak bizi zitueno. Alabaina 10. alerako utzi zuen aldizkaria Matxari zuzendariarekin izaniko tira-birengatik, Agirre hil berria zela eta agertu artikuluari eginiko zentsura zela eta.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Kristo gure errege, adora...

BOTERE POLITIKOAREN irudia historian zehar beti erlijiozko jainkotasunari loturik erabili izanda. Israeldarren artean botere politikoa eta erlijiozkoa erabat loturik ageri dira. Erromako inperioan Zesar jainkotzat jo, eta enperadoarekiko adorazioa sortu zen, eta abar.

Kristau aroaren hasieran, III-IV mendeetan, inperioaren botere kontzeptua ezin zuen ulertu herri xehe eskolagabekak. Dioklezianok (284-305), Enperadorea Erromako hiritar guzien buruzagia zela ongi jakin arren, haren irudia jainkoaren irudiari lotu behar izan zion; jendeak lurreko gizon haren botere ahalguztiduna onetsiko bazuen. Gero Konstantinok (307-337) kristautasuna onetsi zuenean, elizaren laguntza izandu zuen, eta honek, enperadorea jainkoaren graziaz aukeratutzat joko zuen.

Irudi berbera iragan zen bisigotoen artera, monarka arrianoak katolizismora bihurtu zirenean. Sevillako Isidoro Sainduak hala dio, baskoiak mendean hartu zituen Suintila erregeaz: (*grati divina ergni susceptit scepra*) errege maki-la jainkoaren graziaz beregandu zuela, alegia. Eta gauza berbera herrialde germanikoetan: errege merovingio zaharrek jainkoa ahotan hartuz zuzitzen zuten beren indar ahalguztiduna.

Hala ere, musulmandarren etorrerarekin, eta Ertaroan kristauen artean sortu zuen hausturarekin, galdu egin zen erregeren izaera jainkozkoa, eta VIII mende aldera, erregeren irudi ahalguztiduna, militar eta politikoa hutsa zen. Baina, monarkia merovingioa ahultzean, eta karolingioa indartzean, Erromako Eliza lonbardoaren aurka burrukan sartu, eta karolingioen laguntzaz Aita Santuaren boterea sendotu egin zen, erregeari

indar erlijiozko berria emate alde.

Eta geroztik irudi hau indartu zen, Ertaro guzian barrena, izkribu, moneta, eta inprimaki guztietan edo esalege sakratua ohiko bihurtuz. Sineste honek, Paulo Sainduaren esanetatik hartu omen zuen indarra: «Izan zaitezte, Jainkoagatik, agintariaren men meneko: nahiz den errege, buruzagi edo gobernari, hark aukeratu baititu gaizkileak zigortzeko eta ongileak laudatzeko».

Geroztik, erlijio/politikak erabat uztarturik ageri zaizkigu historian, eta zer esanik ez, hainbeste gerra eta errege istilu bizi izan dituen euskal lur sinesbera honetan. Trentoko Kontzilio ondotik piztu ziren *erlijio gerrak* lekuko.

Eta, egundaino lelo berberak iritsi zaizkigu: *si superan los curas y frailes, las hostias que iban a llevar, subirian al coro cantando: libertad! libertad! libertad!*, ... Beste milaren artean, ezagunenak aipatze arren.

Karlistadako bertsoa ere horretaz da damu: . Nola ba, bestela? Triangelu hautsi ezin bat osatu baitute betidanik erlijio-soak, politikeroak eta iraultzaileak, eta badirudi ez dela sortuko triangelu hori hautsiko duen jainkorik sekulan. Berdin dio eliza, gobernu, edo kale gorria izan, triangelu horretantxe babesten dute elkar hipokritak eta inozenteak.

Orain, erlijioa galdu dela usate den honetan, ikusten da horri aisena: politika edo iraultza kasik erlijio huts bihurtu denen. Nik benpe, buruan jainko bana eta haren mila adoratzailer dituen jendajea besterik ez dut sumatzen inorekin hizketan hasi ordu.

Bai, zail da Jainkoa hiltzen. Zerorrek ixilka eta xuhur ez baduzu hiltzen, beste hamalau mila jaiotzen baitira inguruan, bat hil orduko. Egungo jende buloso eta antsikabea lekuko, poltsean jainko bana daramana.

Ziria

• Motxorrosolo •

Garazira bidean

ALDERDIEK EZ OMEN ZUTEN OSO GARBI LIZARRATIK GARAZIRA JOATEAREN kontua. Karta birritan behatu behar bide egokiaren zerkana. Alta, ez zaie damutu, egindako hautua zuzena oso. Garazira bidean alderdi edota talde ezberdinetako partaideak bidailagunak bihurturik, adostasunaren marka. Giza-mugimenduak dira afera honen konponbidea klarkien pausatu dutenak. Datorrenerako ez dute karta birritan behatuko.

Jabier Igiñiz

☉ Kooperazioan aditua

«Baliagarria izatea da nire helburua»

Jabier Igiñiz, Peruko Unibertsitate Katolikoko Ekonomia fakultateko dekanoa, Nafarroan izan da egunotan garapen bidean dauden herrialdeetan nazioarteko kooperazioak duen etorkizunaz mintzatzeko. Jaiotzez lesakarra bada ere, gaztetatik Liman bizi da. Bere helburua besteentzako baliagarria izatea dela dio.

HITZALDI BATEN ATARIAN HARRAPATU genuen. Belarri bat gure galderetan eta bestea kide batek ari zuen jardunean eduki bazuen ere, prestu eta soseguz erantzun zion itaundutakoari.

■ Zerk eraman zintuen Perura?

Aitak deituta joan ginen hara. Haurtzarora Irunen eta gaztarora Lesakan bizi izan eta gero, hamalau urte nituela, Lesakatik atera nintzen Limarantz, beste hiru anaia gazteagoekin eta amarekin. Han, Ingeniaritza Elektrikoa ikasi nuen, eta Estatu Batuetan Ekonomia.

■ Zer egiten du lesakar batek han?

Unibertsitatean aritzen naiz; ekonomia katedraduna naiz, eta, aldi berean, heziketa lortzeko aukerarik ez duten taldeekin egiten dut lan. Komunikabideetan ere idazten ditut artikulak. Nire helburua baliagarria izatea da. Izan ditudan abantailak txiroenen onurarako erabiltzen eta islatzen saiatzen naiz beti. Egun, asko kezkatzen naute oso gaizki hartuak eta baztertuak izan diren gizarte sektoreenganako giza harremanek eta etika elementuek.

■ Ameriketako beste herrialde batzuetan ez bezala, ez da ohikoa Perun euskaldunak aurkitzea. Zergatik aukera hori?

Ez dago euskaldun asko, Peruk ez duelako mende honetan etorkinaren esku zabaleko politikarik izan. Askotan begi txarrez hartu eta ukatu egin ditu etorkinak, eta horregatik daude gehiago Mexikon, Caracasen eta Buenos Airesen, han politika irekiak izan zituztelako.

■ Nolako harremanak dituzu hemengo familiarekin?

Oso onak eta xeratsiak. Bi osaba ditut Lesakan, eta haiek agurtzera etortzen naiz ahal dudanean. Atlantiko itsasoa hitzaldien arabera gurutzatzen dut,

soslaia

Aita irundarra eta ama lesakarra zituen Jabier Igiñiz Etxeberria 54 urteko lesakarrak. Aita gudaria izan zuen, eta amnistia lortu bazuen ere, Euskal Herrian garai txarrak zirenez Perura joatea erabaki zuen. Aitak deituta joan zen hara, familiarekin batera, 1960ko uztailaren 7an, San Fermin egunean. Geroztik Liman bizi da. Perutar batekin ezkondua da, eta hiru seme eta iloba bat ditu.

Nazioarteko kooperazioan aditua izanik, hainbat hitzaldi eskaini ditu Atlantiko itsasoaren bi aldetako hainbat herrialdeetan.

Unibertsitateko irakaslea izateaz gain, Cuscoko Pastoral Andina Institutoko *Allpanchis Phuturinga* aldizkari zientifikoa zuzentzen du.

Igiñizek ez duela aisialdiarik dio. Dena den, honantz hurbiltzen den aldioro Lesakako lagunekin txikiteoan ibiltzen da, eta Irungo lehengusuarekin kayak egitera joaten da Bidasoa ibaira.

Zinemara ere joaten da noizbehinka. Azken boladan ikusi dituen filmen artean Montxo Armendarizen *Secretos del corazón* pelikula asko hunkitu omen du, protagonistarekin oso identifikatua sentitu delako. «Nire haurtzaroren eta harenaren arteko parekotasun ikaragarriak daudela sentitu dut», aitortu du.

gonbidatzen banaute hurbiltzen naiz. Irunen ere gauza bera egiten dut, han badudalako izeba bat eta lehengusu asko.

■ Nola ikusten duzu Euskal Herria?

Ahal dudanean egiten ditudan bisitok ez didate uzten hemengo egoera nahi nukkeen bezainbeste

ulertzen, eta interes handiarekin jarraitzen dut hemengo bizitza. Dena den, ez naiz inplikaturik bertako arazoetan hemen biziko banintz eginen nukkeen bezala. Hala ere, oso interesaturik nago hemen gertatzen denaz. Euskal Herrian gelditu ziren nire sustrai batzuk eta han beste batzuk ezarri ditut. Horrek osoago egiten nau eta etorrera hauek osatu egiten naute.

■ Behin betiko itzultzea pentsatu duzu?

Ez. Baina badut luzeagorako etortzeko gogo, nire euskara berreskuratzeko asmoz. Lesaka eta Donostia arteko autobusa hartzen dudana bakoitzean Lesakako euskara dexente ulertzen dut. Denbora luzeagorako etortzeko aukera banu, familiarreko euskara berreskuratzea gustatuko litzaidake. Eguberri kantak eta abesti zaharrak oroitzen ditut, baina bestea ahantzia dut. Gainera, alde egin nuenean euskara ez erabiltzeko politika oso aktiboak zeuden eta horrek ere eragina izan zuen niregan.

■ Euskaldunak Ameriketako oso ongi hartuak izan ziren moduan, egun oro har gurean handik etortzakoak ez dira begi onez onartuak. Beharra zer den ahaztu egiten da?

Denetarik dago. Ez dira egoera guztiak zaku berean sartu behar. Krisi ekonomikoak eta langabeziak harremanak ozpindu egiten dituzte. Irtenbideak aurkitzen saiatu behar dugu, oztupoak jarri ala ez, edonola ere, etorriko den jendea toki egiteko. Galga jarri ahal izan den diogu hegoaldeko iparralderako emigrazioari, baina herrialdeen arteko ezberdintasunak hainbeste handitzen ari direnez, behar handiena dutenen irtenbide bakarra migrazioa da. XXI. mendean gurekin egonen den arazoa izan da eta ez dugu gehiegi kezkatu behar. Arrazoia oso argia da, herrialdeen arteko ezberdintasuna askozaz gehiago handitzen ari da herrialde horien barruan baino. Hori gero eta gehiago nabaritzen ari da eta alde egitea garapenerako ezinbesteko aukera izan da.

■ Nafarroak 1.612 milioi pezeta (64,58 milioi libera) eman ditu aurten nazioarteko kooperazio proiektuetarako. Hemen eskaintzen den laguntza uste den emaitzak lortzen ditu?

Ez diezaiozun kanpoko kooperazioari gehiegi eskatu. Garapen prozesuaren %90 gure esku dago. Nazioarteko kooperazioa kualitatiboki oso garrantzitsua da, bertako jendeak askotan saiatu ez dituen baliabideak frogatzeko aukera eskaintzen duelako. Balantzea baikorra da. Ez diegu hainbeste erreparatu behar dauden baliabideei, baizik eta horietaz egiten den erabilerrari: osasunean, elikaduran edota hezkuntzan lortzen den kalitateari, alegia.

■ Zein asmo dituzu etorkizuneko?

Unibertsitatean lan egiten jarraituko dut, eta GKEekin. Biak uztartzen jarraituko dut, irakasleentzako neure buruari zer galdera egin behar dizkiodan jakiteko.

→ Irene Arrizurieta



● MIKEL UHARTE

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Indarkeriaren kulturaz

ZALANTZARIK GABE, ZUZEN dabil oso barne aferetarako jaun ministroa, indarkeriaren kultura ez baita astebetean urtutzen edo desegiten. Konparazio batera, hemengo gobernadorearen jokamoldeak ez dira ez astebetean, ez hilabetean, ez urtebetean, ezta sekula santan ere aldatuko. Azken buruan, ez da hezia izan demokraziatzat jo genezakeenaren arauen pean, eta adinez aitzinera doa bere ohiko jokaera makurrarazteko. Baina argi dago gisa horretako jarrerak eta hondarreko egunotan ikusi ditugun bertze batzuk ez datozela bat egoera berri honekin. Bitartean, jende franko –politikari, kazetari, irratzi-solaskide– ikusten da zer egin ez dakiela, ez baita joan deneko urte sail luze honetan begien aitzinean agertzen zaigun marrazkia, ezohikoa baizik, eta iduri du marrazki berri horrek errotoik aztoratu eta nerbiostu dituela, eta ahaleginetan dabiltzala euren begiradaren jomuga betikoa izan dadin.

Bizkitartean, corellarrak, irri-garri, adierazi du Aznarrek ez duela hartu biok horrela adostuta, bilera horrek nafar gizartean estura eta larrialdia sortuko zuelakoan. Jakina, nola erranen zuen Sanzek Madrilgo PPTik Diputaziora deitu zutela hari agindu zehatza emateko? Agindua honetan zetzan, hots, «Presidenteak ez zaitu hartuko Donostian. Beraz, ez zaituz hara joan larunbat honetan». Diputazioburuak, orduan, berealdiko haserrea harrapatu zuen eta ez zaio oraindik arindu.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Iruñea: Elektro Break Beat festa egingen da etzi, 21:30etan, Donegal tabernan.
- Otsagi: Daniel Xalbadorrek, Gerard Ildioik eta Ziztu bizian taldeak musika saioa eskainiko dute bihar, frontoian, 23:30etan.
- Zangoza: Carmengo Auditoriumean, pop musikara hurbiltzeko kontzertu didaktikoa eskainiko du Artsaiako Musika Moderno Eskolak. Emanaldia bihar izanen da, 19:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

- Ezkaroze: Etzi Azken Mohikanoa filma eskainiko da Juntetxean, 16:30etan. Pelikula bera pantailaratuko da ordu eta toki berean heldu den astelehenean.

ANTZERKIA

- Ezkaroze Mozorro Berri taldeak Gure lurreko kondairak ikuskizuna eskainiko du bihar, Juntetxean, 19:30etan.
- Azkoien Pasadas las 4 taldeak Baby boom en el paraiso lana eskainiko du gaur, 22:00etan, Kultur Etxean.
- Tafalla Behi Bi's taldearen Zuk zeuk txotxongilo emanaldia izanen da datorren asteazkenean, 18:00etan, Kultur Etxean.

IKASTAROAK

- Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak ikastaroak antolatu ditu. Hurrek joko dramatiko eta antzerki tekniken hastapenak ikasteko aukera izanen dute, euskaraz zein gaztelaniaz. Bestalde, helduentzako antzerki tekniken hastapenak ere irakatsiko dira bi hizkuntzetan. Matrikulazio epea urriaren 15ean bu-

katuko da. Informazio gehiago nahi duenak 22-92-39 telefonora deitu behar du edo eskolak dituen bulegoetara jo dezake, San Agustín kalea, 5.

BESTELAKOAK

- Zubieta: UEMA Egunean, Mikel Mendizabal eta Xabier Zerberio bertsoetan ariko dira.

► Izalzu: J. Gurutzia garen Anduña ibaiaren inguruan egingo dako diapositiba emanaldia izanen da gaur, 20:30etan, Elkartean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Fite jan eta fite hil

BASQUE EAST TYPICAL FOOD

† El alcalde de Zabaldika † le echa a las berzas txungur, † en cambio le echa birika † el alcalde de Zizur. † Ora pro nobis, † con txantxingorris, † en casa Gorriz, † son las mejoris. †